



ITSASOKO GIZARTE INSTITUTUAREN GIZARTE

SEGURANTZAREN ZERBITZUAK

EGOITZA ELEKTRONIKOAN



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES

INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

AURKIBIDEA

ZER DA GIZARTE
SEGURANTZAREN
EGOITZA ELEKTRONIKOA
ETA NOLA SAR DAITEKE?

04

SEGURUA DA EGOITZA
ELEKTRONIKOA
ERABILTZEA IZAPIDE BAT
EGITEKO?

19

06

GIZARTE
SEGURANTZAREN
ZER ZERBITZU DAGO
ESKURAGARRI EGOITZA
ELEKTRONIKOAN
ITSASOKO ARAUBIDE
BEREZIAREN
AFILIATUENTZAT?

19

BALIO BERA DUTE
EGOITZAN EGINIKO
KUDEAKETEK ETA AURREZ
AURREKOEK?



ITSASOKO GIZARTE
INSTITUTUAREN GIZARTE
SEGURANTZAREN ZERBITZUAK
EGOITZA ELEKTRONIKOAN

*Gogoratu zerbitzu horietako
batzuk eskuragarri daudela
"IGI zure poltsikoan".*



ZER DA GIZARTE SEGURANTZAREN EGOITZA ELEKTRONIKOA ETA NOLA SAR DAITEKE?

ZER DA GIZARTE SEGURANTZAREN EGOITZA ELEKTRONIKOA?

Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa web-orri bat da, eta aukera ematen die Gizarte Segurantzako Sistemako **langile eta pentsiodunei Internet bidez Gizarte Segurantzarekin izapideak egiteko**. Titulartasuna, kudeaketa eta administrazioa Gizarte Segurantzari dagozkio, haren eskumenak baliatuz.

Gida honen bidez, erantzunak eman nahi zaizkie Itsasoko Langileen Araubide Bereziko langileek eta pentsiodunek Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa eskuragarri dauden Gizarte Segurantzako zerbitzuen erabileraren inguruan dituzten kontsultarik ohikoenei.

Eskaintzen diren zerbitzuak profilaren arabera izango dira, langilea edo pentsioduna den eta Gizarte Segurantzarekiko afiliazio-araubidearen arabera.

// Dokumentazioak aurkezteko, txostenak eskatzeko eta aurretik presentzia fisikoa behar zuten beste zerbitzu batzuetara sartzeko aukera ematen du.



NOLA SAR DAITEKE EGOITZA ELEKTRONIKOAN?

Itsasoko Gizarte Institutuak Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa eskaintzen dituen zerbitzuetara sartzeko, urrats hauek bete behar dira:

- 1 Hemen sartu <https://sede.seg-social.gob.es>
- 2 Hiritarrak.
- 3 Itsasoko Erregimen Berezia.
- 4 Aukeratu erabili nahi den zerbitzua.
- 5 Egiaztatu behar diren eskakizun teknikoak.
- 6 Markatu izapidea nork bere izenean, ordezkari gisa edo ahalduz inskribatu gisa egingo den.
- 7 Hautatu elektronikoki identifikatzeko nahi den aukera.
- 8 Sakatu "Informazio gehiago".

Zerbitzu bakoitzak zenbait baliabide eskaintzen ditu sartu ahal izateko: ziurtagiri elektronikoa, erabiltzailea + pasahitza, CI@ve, ziurtagiririk gabe edo SMS bidez.

- **Ziurtagiri elektronikoa:** PSistema honen bidez sartzeko, Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak emandako ziurtagiri elektronikoa behar da; hark eskatzailea sinadura egiaztatzeko datu batzuekin lotzen du eta bere nortasuna berresten du.
- **Erabiltzailea + pasahitza:** Administrazioaren zerbitzu elektronikoetara sartzeko autentifikazio-sistema. Erabiltzaile-kode batean, haren NAN edo AIZ batean eta pasahitz batean oinarritzen da
- **CI@ve:** Identitate elektronikoa administrazio publikoetan izapideak egiteko.
- **Ziurtagiririk gabe:** Ez da identifikazio elektronikorik behar.
- **"SMS bidez":** Eskatzen diren datuek bat etorri behar dute Gizarte Segurantzaren datu-basean erregistratutakoekin.

NOLA SAR NAITEKE SARBIDE-ZERBITZUETARA SMS BIDEZ?

Zerbitzu horietara sartzeko aukera izateko, inprimakian eskatzen diren datuak bete beharko dira eta haiek bat etorri beharko dute Gizarte Segurantzaren datu-basean erregistratutakoekin.

Telefono-zenbakia erregistratuta ez badago edo eguneratuta ez badago, egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen zerbitzuari jakinarazi ahalko diozu. Horretarako, honako ibilbide honi jarraitu beharko zaio:



1

Gizarte Segurantzaren
egoitza elektronikoa

2

Hiritarrak

3

Afiliazioa,
Izen-ematea
eta Aldaketak

4

Telefonoaren eta
helbide elektroni-
koaren aldaketa
eta komunikazioa

GIZARTE SEGURANTZAREN ZER ZERBITZU DAGO ES- KURAGARRI EGOITZA ELEKTRONIKOAN ITSASOKO ARAUBIDE BEREZIAREN AFILIATUENTZAT?

Itsasoko Gizarte Institutuak Itsasoko Araubide Bereziaren afiliatuen esku Gizarte Se-
gurantzaren zerbitzu mota ugari jartzen ditu:

NORBERAREN KONTURAKO ITSASOKO ERREGIMEN BEREHIKO LANGILEEN ALTA

Zerbitzu honen bidez, norberaren kon-
turako langile gisa alta emateko eska
daiteke Itsasoko Langileen Araubide Be-
rezian, Gizarte Segurantzako Sistemaren
barrian. Zerbitzu hau Espainian bizi di-
ren espainiar guztiei eta Espainian bizi

diren edo legez Espainian dauden atze-
rritarrei zuzenduta dago. Horretarako,
erregelamenduz ezarritako baldintzak
bete beharko dira, Itsasoko Langileen
Araubide Bereziaren norberaren konturako
langile edo autonomo gisa alta emateko
eskatzeko.

Zer behar da?

Eskatzaileak pantailan agertzen diren
datuak bete beharko ditu, hori baino ez.
Aurretik Gizarte Segurantzaren baliozko
zenbaki bat izan beharko da esleitura.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa kasu
bakoitzaren arabera izango da. «Al-
ta-ereduak betetzeko jarraibide» doku-
mentuetan, egingo den jardueraren
arabera sailkatuta dagoen kotizazio-tal-
dearen arabera erakusten da. «Erant-
sitako dokumentazioa» ren atalean,

jarraibideak eta «Laguntzarako eskuli-
burua» daude.

Gaur egun ezin da altaren dokumen-
tazio osagarriarik erantsi. Hori dela eta,
Jarraibideetan zehazten diren dokumen-
tuak aurkezteko eta eskakizunak betet-
zen direla egiaztatzeko, zerbitzu honek
alta izapidetu ondoren, eskatzaileak
honako jarduera hauetakoren bat egin
ahalko du:

1

«Beste idatzi, eskaera eta jakinarazpen batzuk aurkezte» (Itsasoko Gizar-
te Institutua), «Hiritarrak/Itsasoko Erregimen Berezia» fitxan.

2

«Errekerimenduei erantzutea edo jasotako dokumentu batekin lotutako
dokumentazioa aurkezte» Gizarte Segurantzari», egoitza elektronikoaren
erregistro elektronikoan dagoena.

3

Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia- edo toki-mailako helbidera zuzentzea.



**Eskaera berresten bada, alta emateko
ebazpen bat emango da, PDF formatuan,
gorde eta inprimatu ahal izateko.**



NORBERAREN KONTURAKO ITSASOKO ARAUBIDE BEREHIKO LANGILEEN BAJA

Zerbitzu honen bidez, Gizarte Seg-
urantzako Itsasoko Langileen Araubide
Berezian norberaren konturako langile
gisa baja emateko eska daiteke.

aren konturako langile edo autonomo
gisa alta emanda badaude, Itsasoko Lan-
gileen Araubide Bereziaren.

Zerbitzu hau Espainian bizi diren espai-
niar guztiei eta bizilekua Espainian duten
edo legez Espainian dauden atzerritarrei
zuzenduta dago, baldin eta Espainiako
Gizarte Segurantzaren Sistemaren norbe-

Eskaera berresten bada, alta emateko
ebazpen bat emango da, PDF formatuan,
gorde eta inprimatu ahal izateko.

ITSASOAREN ARAUBIDE BEREZIAN NORBERAREN KONTURAKO AURRETIKO ALTAK ETA BAJAK EZABATZEA

Zerbitzu honek aukera ematen du azke-
nean jarduera hasiko ez duen edo
jarduera Itsasoko Langileen Gizarte
Segurantzako Araubide Bereziaren au-
rreikusitako epearen ondoren amaituko
duten kasuen aurretiko altak eta bajak
baliogabetzeko.

Zerbitzu honen bidez, aurretiko altak eta
bajak ezabatzeko eska daiteke. Hala ere,
jarduera hasi aurretik soilik egin ahalko
da, alden kasuan, edo jarduera amaitu
aurretik, aldez aurreko baje kasuan.

ITSASOKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIAN NORBERAREN KONTURAKO KOTIZAZIO-DATUEN TXOSTENA

Zerbitzu honek aukera ematen du liki-
dazio-aldi bateko norberaren konturako
langilearen kotizazio-datu txostena
eskatzeko. Likidazio-aldiak 2018ko ur-

tarrilekoa edo geroagokoa izan beharko
du. Hautatutako aldiaren zenbait lan-ha-
rreman agertzen badira, haietako bat
hautatu beharko da.



// Eskatzaileek kotizazio-kontuaren kode bat edo afiliazio-zenbaki bat izan behar dute Gizarte Segurantzaren eremuan.

EBAZPENA, NORBERAREN KONTURAKO ITSASOAREN ARAUBIDE BEREZIKO ALTA ETA BAJEN KOPIARI BURUZKOA

Zerbitzu hau Erregimen Berezi honetan alta- edo baja-egoeran dauden norberaren konturako langileei zuzenduta dago, eta aukera ematen du Araubide horretako alta eta baje ebazpen-agirien kopiak berehala kontsultatzeko.

Ebazpen hori PDF formatuan deskarga daiteke, inprimatzeko

GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA ESKATZEA

Gizarte Segurantzako zenbakia da herritar bat Gizarte Segurantzarekin dituen harremanetan identifikatzen duena. Zenbaki hori nahitaezkoa da Gizarte Segurantzako pentsio, subsidio edo prestazioen edozein onuradunentzat. Gainera, nahitaezkoa da afiliatu aurretik edo Gizarte Segurantzako edozein araubidetan alta eman aurretik hura eskatzea.

// Zenbaki hori afiliazio-zenbaki bihurtuko da lehen aldiz lan-harremana hastean.

Zerbitzu honen bidez, herritarrei eta norberaren edo besteren konturako langileei Gizarte Segurantzako zenbakia eskatzeko aukera ematen zaie, **betiere aurretik bat esleituta izan ez badute.**

Ondoren, Gizarte Segurantzako zenbakia esleitu ondoren, dagokion ebazpena eman- da, eta eskatzaileak inprimatu ahalko du.

GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA EGIAZTATZEA

Zerbitzu honek aukera ematen du Gizarte Segurantzako zenbakia kontsultatzeko. Hura eduki ezean, zerbitzu honek hura falta dela jakinaraziko du.

Txosten bat jaso ahalko da, Gizarte Segurantzarekiko harremanen subjektu pasibo gisa identifikatzeko.

ZURE LAN-BIZITZAREN TXOSTENA

Zerbitzu honetan Gizarte Segurantzako araubide guztietako alta- eta baja-egoera guztiak kontsultatu ahalko dira, bai eta alta-egoeran egondako egun kopurua ere. **Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren «Importass» atarira bideratuko zaizu,** eta, bertan, adieraziko diren urratsei jarraitu beharko diezu

ITSASOKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIKO JARDUERA-ANIZTASUNAGATIKO OINARRI MURRIZTUAREN

Zerbitzu hau Gizarte Segurantzaren eremuan afiliazio-zenbakia edo kotizazio-kontuaren kodea duten afiliatuei eta enpresaburuari zuzenduta dago.

Interesdunek langile autonomoaren oinarri murriztua eskatu ahal izango dute, «jarduera-aniztasuneko egoeran» egoteagatik. Era berean, oinarri murriztuaren etendura kendu ahalko da, berritua ere «jarduera aniztasuneko egoeran» hasteagatik, betiere **36 hilabeteko** gehieneko iraupena igaro ez bada, oinarri murriztuaren hasierako lehen idatzoharretik zenbatzen hasita.

Jarduera aniztasunagatik oinarri murriztua hautatzea bateraezina izango da enplegu autonomoa sustatzeko neurri gisa ezarritako ho- bariarekin edo murrizketarekin («tarifa laua» esaten zaio).

ITSASOKO LANGILEEN ARAUBIDE BE- REZIKO KOTIZAZIO-OINARRIEN TXOS-

Gizarte Segurantzaren eremuan kotizazio-kontuaren kodea duten afiliatuak eta enpresaburuak.

Interesdunek likidazio-aldi bati buruzko norberaren kon- turako langileen kotizazio-oinarrien txostena (IDC/CP- 100) eskatu ahalko dute, Itsasoko Langileen Araubide Bereziaren.



Likidazio-aldiak 2018ko urtarilekoa edo geroagokoa izan behar du.

GIZARTE SEGURANTZAKO BETEBEHARRAK EGU-NEAN DAUDELA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAGIRIA

Gizarte Segurantzako zenbakia esleituta duten pertsonak, atxikita dauden araubidea edozein dela ere, **zerbitzu honen bidez, berehala ikusi eta kontsultatu ahalko dute interesdunaren egoera adierazten duen ziurtagiri bat**. Era berean, berariazko ziurtagiriak eskuratu ahalko dira, dirulaguntzen ondorioetarako, kontratu publikoak emateko prozesuetan parte hartze-ko eta Langileen Estatutuaren 42. artikuluan araututako kontraten eta azpikontraten kasuetan

ZURE DATU PERTSONALEN ETA HELBIDEAREN TXOSTENA

Zerbitzu honen bidez, eta on-line, pertsonaren identifikazio-datuak (NAN, AIZ, jaioteguna) eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren datu-basean dagoen helbidea jasotzen dituen txosten bat kontsultatu, eskuratu eta inprimatu ahalko da.

TELEFONOAREN ETA HELBIDE ELEKTRONIKOAREN ALDAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Gizarte Segurantzako zenbakia esleituta duten pertsonak, atxikita dauden araubidea edozein dela ere. Zerbitzu honen bidez, telefono mugikorrari, telefono finkoari eta posta elektronikoa buruzko informazioaren alta eman edo hura aldatu ahalko dute.

JUBIMAR SIMULAGAILUA.

JUBIMAR simulagailua zerbitzu berria da, eta aukera ematen die Itsasoko Araubide Berreziko langileei beren etorkizuneko erretiro-pentsioa simulatzeko. Simulazioa informazioarako baino ez da; beraz, ez du ez eskubiderik ez eskubide-aukerarik eragiten herritarraren alde.

Simulazioa eskuratu ondoren, herritarrak erretiro-pentsioaren eskaera Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa bidez edo aurrez aurre bere bizilekutik hurbilen dagoen Itsasoko Gizarte Institutuaren tokiko edo probintziako helbidean aurkez dezake; azken kasu horretan, alde aurretik hitzordua eskatu beharko da.



Gizarte Segurantzaren afiliazio-zenbaki bat esleituta duten pertsonak sartu ahal izango dira.



COE TXOSTENA

Zerbitzu honen bidez, txosten bat eskuratu edo online kontsultatu ahal izango duzu Gizarte Segurantzako afiliatu gisa duzun historialarekin, araubideekin eta erretiro-adinaren koefiziente murriztaileak aplikatzeko eskubidea sortu duten aldiekin. Zerbitzu honetan, **eskuratzeke datari dago-kion koefiziente murriztailearen kalkulua ere erakusten da**.



Zerbitzu honetan sartzen diren datuek bat etorri behar dute Gizarte Segurantzaren datu-basean daudenekin.



COEren txosten hori informazioarako baino ez da; beraz, ez du bere aldeko eskubiderik edo eskubide-aukerarik sortuko. Agertzen diren datuak egiaztatzean zuzenak ez bada edo argibideren bat egin nahi baduzu, zure bizilekutik hurbilen dagoen Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia- edo toki-helbidera jo dezakezu. **Egin daitezkeen al-daketek informazio horren edukia alda dezakete**. Txosten hau PDF formatuan jaitsi daiteke, inprimatzeko.

EUROPAKO OSASUN TXARTELA

Zerbitzu honen bidez, Europako Osasun Txartela **eskatzeko edo berritzeko aukera dago, alde aurretik identifikazio elektronikoa eginda**.

Osasun-laguntza jasotzeko eskubidearen titularrak eta beren kargura dauden onura-dunak izan ahalko dira zerbitzu honen erabiltzaileak, baldin eta Espainiako legeriak eta Gizarte Segurantzaren Erregelamendu Komunitarioek eskatzen dituzten baldintzak betetzen badituzte.

Nola lor dezaket nire Euro-pako Osasun Txartela?

ESKAERA ZURE GIZARTE SEGURANTZAREN ATARIAN



Sartu «Zure Gizarte Segurantzaren» atarira



«Osasun-laguntza» atarian-«Eskatu Europako Osasun Txartela»



Aipatu zer helbi-detara nahi duzun bidaltzea txartela



SMS BIDEZ BALIOZKOTZEKO ESKAERA

SMS baten bidez, sistemak SMS kode bat bidaliko du Gizarte Segurantzaren datu-basean alta emanda dagoen telefonora, nortasuna egiaztatzeko.

Telefono-zenbakia erregistratuta ez badago edo eguneratuta ez badago, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen zerbitzuari jakinarazi ahalko diozu. Horretarako, honako ibilbide honi jarraitu beharko zaio:



ZIURTAGIRIRIK GABEKO ESKAERA

Zerbitzu honen bidez, ziurtagiririk gabeko Europako Osasun Txartelaren eskaera aurkez daiteke. Hura eskatzeko, **Gizarte Segurantzaren datu-basean agertzen den helbidea eguneratuta eduki beharko da**, sartzen denarekin bat etorri beharko baitu, eta eskatzen ari zaren formularioa bete.

Norako balio du zerbitzu hauen bidez eskatzen ari naizen Europako Osasun Txartelak?

Honako estatu hauetarako: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Suitza.

Baina ez du baliorik izango lekualdaketaren helburua Europar Batasuneko beste estatu kide batean tratamendu mediko bat jasotzea bada; kasu horretan, Itsasoko Gizarte Institutuak dagokion formularioa eman beharko du, Osasun Zerbitzu Publikoak aldeko txostena eman ondoren.

Kasu batzuetan, osasun-laguntzatik eratorritako gastuen kopuru finko bat edo ehuneko bat onartu beharko da, norbera lekualdatutako estatuko aseguratuaren baldintza beretan. Zenbateko horiek ezin dira itzuli.

Europako Osasun Txartelak balioa du ematen den egunetik eta hartan adierazten den iraungipen-dataraino. Txartel hori erabili ahal izateko, titularrak txartela eskuratzeko eskakizunak betetzen jarraitu beharko du, txartelak balioa duen bitartean. Sortzen diren gastuak bidegabeko prestazio gisa erreklamatu ahalko dira, Erregelamendu Komunitarioetan aurreikusitakoaren arabera.



Argibide gehiagorako, Interneteko honako helbide hau kontsulta dezakezu: <http://ec.europa.eu/social>.



Salbuespenak

Ezingo dute Europako Osasun Txartela Interneteko zerbitzu honen bidez eskuratu honako aseguratuetakoz batzuek:

Langabeziagatik prestazioak jasotzen dituztenak eta haien onuradunak.

Osasun-laguntzarako eskubidea Espainiko egoiliar gisa aitortuta duten aseguratuak, edo langabeziagatik prestazioak agortu dituztenak.

Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea duten eta AIZ duten onuradunak.

Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea esportatzeko dokumentazioa aurkeztu behar duten aseguratuak.

Kasu horietan, Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia- edo toki-zuzendaritzetara joan beharko dute.


Noiz jasoko dut txartela?

Europako Osasun Txartela eskabidean adierazitako helbidera bidaliko da, **gehienez 10 eguneko epean**.

ORDEZKO BEHIN-BEHINEKO ZIURTAGIRIA

Zerbitzu honek Europako Osasun Txartelaren Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria eskuratzeko aukera ematen du. Osasun-laguntzarako **eskubidearen titularrek eta haien onuradunek izango dute eskuratzeko aukera**, baldin eta Gizarte Segurantzaren Erregelamendu Komunitarioetan eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Nola eskatzen da Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria?





Beharrezkoa den softwarea eduki behar da ziurtagiria deskargatzeko edo inprimatzeko (PDF artxiboa).

Norako balio du zerbitzu hauen bidez eskatzen ari naizen Ordezko Behin-behineko Ziurtagiriak?

Honako estatu hauetarako: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Islandia, Italia, Letonia, Liechtenstein, Lituania, Luxenburgo, Malta, Norvegia, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Errumania, Suedia eta Suitza.

Adierazitako herrialderen batera joan-etorriak egin aurretik, Ordezko Behin-behineko Ziurtagiriaren baliozkotasuna egiaztatu behar da, aurreikusitako itzulera-data jasotzen duela.

Garrantzitsua da honako hau jakitea

Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria agiri pertsonala eta besterenezina da, eta ikuspuntu mediko batetik, beharrezkoak diren osasun-prestazioak jasotzeko eskubidea egiaztatzen du. Baliozkoa den lurraldean aldi baterako egonaldia egin ahalko da, eta prestazioaren izaera eta aurreikusitako egonaldiaren iraupena hartuko dira kontuan, egonaldiaren motiboa edozein dela ere: turismoa, lanbide-jarduera edo ikasketak.

Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria ez da baliozkoa joan-etorriaren helburua tratamendu mediko bat jasotzea denean. Kasu horietan, Itsasoko Gizarte Institutuak dagokion formulario bat emango du, Osasun Zerbitzu Publikoak aldeko txostena eman ondoren. Ez da baliozkoa egoitza Europar Batasuneko beste estatu kide baten lurraldera aldatzen denean.

Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria baliozkoa da dokumentuan adierazten den al-dian (gehienez 90 egun, hasiera-datatik). Hura erabiltzeko, Ordezko Behin-behineko Ziurtagiriaren titularrak hura eskuratzeko behar izan zituen eskakizunak betetzen jarraitu beharko du. Bestela, sor daitezkeen gastuak bidegabeko prestazio gisa erreklamatu ahalko dira, 883/2004 Erregelamendu Komunitarioaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Salbuespenak

Ezingo dute Ordezko Behin-behineko Ziurtagiria Interneteko zerbitzu honen bidez eskuratu honako aseguratuetako batzuk:

Langabeziagatiko prestazioak jasotzen dituztenak eta haien onuradunak.

Erkidegoz kanpoko nazionalitatea duten titularrak, indarreko bizileku-baimena aurkeztu behar dutenak.

Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea esportatzeko dokumentazioa aurkeztu behar duten guztiak.

Kasu horietan, Itsasoko Gizarte Institutuaren probintzia- edo toki-zuzendaritzetara joan beharko dute.

PRESTAZIOEN ZIURTAGIRI INDIVIDUALIZATUA

Zerbitzu hau Gizarte Segurantzako sistemaren edo sistematik kanpoko den eta Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan integratuta dagoen erakunderen baten prestazioen bat aitortuta duten edo ez duten pertsonen zuzenduta dago.

Zer ziurtagiri eska dezaket?

Kobratzeko zenbatekoen ziurtagiria, laburpena.
Kobratzeko zenbatekoen ziurtagiria, banakatuta.
Bajan edo etenda dauden pentsioen ziurtagiria.
Kenkarien onuradunentzako ziurtagiria.
Zenbatekorik gabeko ziurtagiria.
Aurreko ekitaldiko PFEZren atxikipenen ziurtagiria.
Errebalorizazioaren ziurtagiria.
Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan jasotako prestaziorik jaso ez izanaren ziurtagiria.

PRESTAZIOEN ZIURTAGIRI INTEGRALA

Gizarte Segurantzako sistemaren edo sistematik kanpoko den eta Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan integratuta dagoen erakunde baten prestazio baten onuraduneri zuzendutako zerbitzua da; halaber, Gizarte Segurantzaren edo sistematik kanpoko erakunde baten prestaziorik jasotzen ez duten pertsonen ere zuzentzen zaie.

Inprimakian ematen diren datuek bat etorri behar dute Gizarte Segurantzaren datu-baseetan daudenekin; bestela, ezingo da ziurtagiria eskuratu.



Zer ziurtagiri eska dezaket?

Interesdunaren inguruan eskuragarri dagoen informazioaren arabera, ziurtagiri hauek:

Prestazioen ziurtagiri laburtua.
Prestazioen ziurtagiri xehatua.
Prestazioen ziurtagiria zenbatekorik gabe.
PFEZren ziurtagiria.
Pentsioen errebalorizazioaren ziurtagiria.
Baja-egoeran edo etenda dauden pentsioen ziurtagiria.
Pentsioen ziurtagiri negatiboa.
Kenkarien onuradunarentzako ziurtagiria.

Deskargatutako ziurtagiria gorde edo inprimatu ahalko duzu.
Ez da dokumentazio gehigarriarik aurkeztu beharko izapidetzea egiteko.
Zerbitzu honetan **ez dira honako ziurtagiri** hauek barne hartzen:

Aldi baterako ezintasunagatik prestazio ekonomikoak.
Jaiotzagatik eta adingabea zaintzeagatik, haurdunaldiko arriskuagatik edo edoskitzeagatik prestazio ekonomikoak.
Minbiziaren edo beste gaixotasun larri baten eraginpean dauden adingabeen zaintzagatik prestazio ekonomikoak.

EZ-PENSIODUNAREN ZIURTAGIRIA

Zerbitzu honek aukera ematen du Gizarte Prestazio Publikoen Erregistroan jasotako prestaziorik jaso ez dela ziurtatzeko agiria jasotzeko. Deskargatutako ziurtagiria gorde edo inprimatu ahalko duzu. Ez da dokumentazio gehigarriarik aurkeztu beharko izapidetzea egiteko.

PFEZ-REN KONTURAKO DIRU-SARRE-REN ETA ATXIKIPENEN ZIURTAGIRIA

Zerbitzu horri esker, Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomikoen onuradunek ziurtagiri bat eskura dezakete prestazio horien zenbatekoarekin, IGIk edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak ordainduta, eta aurreko ekitaldian PFEZaren ondorioetarako egindako atxikipenekin. Eskuragarri dagoen edozein sarbide-moduk «Zure Gizarte Segurantzaren» atarira eramango zaitu.

- 1 Pentsioduna bazara: sakatu «Ikusi zure pentsioa» eta aukeratu «PFEZ atxikipenaren ziurtagiria».
- 2 Langilea bazara, «Lana» atalean, sakatu «PFEZ atxikipenaren ziurtagiria».

Deskargatu duzun PFEZren konturako sarreraren eta atxikipenaren ziurtagiria gorde edo inprimatu ahalko duzu. Ez da dokumentazio gehigarriarik aurkeztu beharko izapidetzea egiteko.

PENSIOKEN ERREBALORIZAZIOAREN ZIURTAGIRIA

Zerbitzu honek aukera ematen du Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioen onuradunek ekitaldi honetako pentsioen errebalorizazioaren ziurtagiria eskuratzeko. Eskuragarri dagoen edozein sarbide-moduk «Zure Gizarte Segurantzaren» atarira eramango zaitu:

- 1 Pentsioduna bazara: sakatu «Ikusi zure pentsioa» eta aukeratu «Errebalorizazioaren ziurtagiria».
- 2 Dagoeneko pentsioduna ez bazara, baina ekitaldi honetan errebalorizazioa aplikatu zaizun pentsio bat jaso baduzu, «Lana» atalean sakatu «errebalorizazioaren ziurtagiria».

Deskargatu duzun pentsioen errebalorizazioaren ziurtagiria gorde edo inprimatu ahalko duzu. Ez da dokumentazio gehigarriarik aurkeztu beharko izapidetzea egiteko.

ZERTAN DATZA NIRE PRESTAZIOA? (BESTE SARBIDE BATZUK)

Zerbitzu honek aukera ematen die beren izenean edo beste pertsona baten izenean aldi baterako ezintasunaren, jaiotzaren eta adingabea zaintzearen edo Itsasoko Gizarte Institutuan eskatutako erretiro-pentsioen prestazioa zer egoeratan dagoen jakiteko eskatu zuten pertsonen kontsultatzeko.

Prozesuaren faseen segimendua egin ahalko da eskaera aurkezten denetik

ebazpena eman arte. Era berean, ebatzitako espedienteak kontsultatu ahalko dira, ebazpena eman zenetik hiru hilabete baino gehiago igaro ez badira.

EBAZPENEN EZ DUTE JASOKO ORDEZKATUAREN PRESTAZIOEN ZENBATEKO EKONOMIKORIK.

OSASUN-LAGUNTZA: ESKUBIDEAREN INGURUKO KONTSULTA ETA EGIAZTAGIRIA EMATEA (ZIURTAGIRIRIK GABE)

Zerbitzu honek osasun-laguntza publikorako eskubidea kontsultatzea eskaintzen du (aseguratu edo aseguratutako baten onuradun gisa), bai eta osasun-laguntzarako eskubidea egiaztatzeak agiria lortzea ere.

Zerbitzu hori eskatzeko, aplikazioan eskatzen den informazioa osatu beharko da, eta norberaren izenean bakarrik lortu ahalko da. Eskubidea egiaztatzen duen agiria eskuratzuz gero, dagokion atalean adieraziko da. Aseguratu edo onuradun gisa osasun-laguntza jasotzeko eskubidea duzun adieraziko du zerbitzuak. **Eskuratu** **ziurtagiriak** **aseguratu edo onuradun gisa dagoen eskubidea egiaztatzen du.** Kontsultatutako pertsona aurkitzen ez badu, arrazoiak eta kasu bakoitzean egin beharreko



jarduketak adieraziko dira. Osasun-laguntzarako eskubideari buruzko informazioa 30 egunez egongo da eskuragarri, egiaztatzeko.

ITSASOKO LANGILEENTZAKO AURRETIKO HITZORDUA ESKURATZEA

Zerbitzu honen bidez, herritar guztiek aurretiko hitzordua eskuratu ahaliko dute Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatzen dituen izapideak egiteko.

Inprimakian eskatzen den informazioa bete beharko duzu. Eskaera egin ondoren, ohar bat jasoko duzu, zure hitzorduaren datuekin, eta hautatutako zentrora joan beharko duzu, adierazitako egun eta orduan. Itsasoratze azterketa medikoa egiteko aurretiko hitzordua eskuratu nahi baduzu, horretarako dagoen berariazko zerbitzuan egin beharko duzu.

AURRETIKO HITZORDUA KONTSULTATZEA / BERTAN BEHERA UZTEA

Zerbitzu honek aukera ematen dio edozein herritarri aldeztu aurretik Itsasoko Gizarte Institutuarekin hitzartutako hitzordua kontsultatzeko edo bertan behera uzteko.

BESTE IDATZI, ESKAERA ETA JAKINARAZPEN BATZUK AURKEZTEA

Zerbitzu honek aukera ematen du Itsasoko Gizarte Institutuari zuzendutako idatziak, eskaerak edo jakinarazpenak aurkezteko, baldin eta aurkezpena Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren zerbitzu espezifiko batean jasota ez badago. Dokumentazioa eransteko aukera ematen du.

Zerbitzu honetan «ziurtagiririk gabe» sartu ahaliko da, eta norberaren izenean edo beste pertsona baten izenean egin ahaliko da.

Kontuan hartzekoak:

- Dokumentazioa Itsasoko Gizarte Institutuaren zer probintzia-helbidetara zuzendu nahi duzun adierazi behar duzu.
- Ordezkarik gisa jardunez gero, erantsitako «dokumentazio erantsia»ren atalean da goen ordezkaritza-eredu normalizatua edo ordezkaritza hori modu fidagarrian egiaztatzen duen eta zuzenbidean baliozkoa den edozein dokumentu erantsi beharko da.
- Konexio-saioa mugatuta dago denbora aldetik; beraz, saioa iraungitzen bada, berriz hasi beharko duzu, eta amaitu gabe dituzun jarduketekin amaitu.

- Dokumentazioaren tamaina, guztira, ezingo da 10 Mb-tik gorakoa izan.
- Izapidetzea errazteko, dokumentazio guztia bidalketa bakar batean bidaltzea gomendatzen da
- Kanal honetatik eskabidearen egoerari buruzko kontsultarik ez egiteko eskatzen dizuegu. Egiaztapenen bat egin edo dokumentazio osagarria eskatu behar izanez gero, Itsasoko Gizarte Institutuko langileak zurekin harremanetan jarriko dira.
- Zerbitzu publikoak arduraz erabili, mesedez, eskabideak eta jakinarazpenak aurkezteko bide hau behar bezala funtziona dezan.
- Ez du eskabidearen edo jakinarazpenaren frogagiririk sortuko, eta ez da Erregistro Elektronikoan sartuko. Jakinarazpena adierazitako probintzia-zuzendaritzara iritsiko da, eta ezartzen den lehentasun-ordenaren arabera kudeatuko da. Gainera, nortasuna egiaztatze eskatu ahaliko da, bai eta bidalitako edo aurkeztu beharreko datuak eta dokumentazioa egiaztatze ere.
- Baieztapen-mezurik jasotzen ez baduzu edo transmisioaren errore- edo huts-mezurik jasotzen baduzu, berrir egin beharko duzu aurkezpena.

SEGURUA DA EGOITZA ELEKTRONIKOA ERABILTZEA IZAPIDE BAT EGITEKO?

Ziurtagiri digitalen bi alde nortasuna bermatuko dute. Internet bidez bidaltzen diren datu pertsonalak zifratuta daude, eta, Gizarte Segurantzako sistematan gorde ondoren, babesteko behar diren bitartekoak erabiltzen dira, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa eta hura garatzeko araudia betez. Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren

bidez lortutako ziurtagiriek PDF formatua izango dute, eta CEA kodea (Egiazkotasunaren Kode Elektronikoa) duten kopia inprimatuak eskuratu ahaliko dira. Kode horren bidez, egiazkotasuna egiaztatuta ahaliko da “Dokumentuen Osotasuna Egiaztatze Zerbitzuan” (esteka eskuragarri dago Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoan).

Herritarren eta Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren arteko komunikazioak seguruak dira.

BALIO BERA DUTE EGOITZAN EGINIKO KUDEAKETEK ETA AURREZ AURREKOEK?

Bai, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoaren bidez egiten diren izapideak aurrez aurre egiten diren balio bera dute.



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

ARGIBIDE GEHIAGORAKO

Web-orria



Egoitza
Elektronikoa



Deskargatu
ISM en tu bolsillo



INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Argitalpen hau Inklusio, Gizarte Segurantzaz eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan sartzen da (2/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa)

Argitalpen honetan, klororik gabeko paper birziklatua erabili da, kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideei jarraikiz

<https://cpage.mpr.gob.es>



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Nipo papel: 123-21-097-0
Nipo digital: 123-21-096-5
Depósito legal: M-33204-2021